



Zorte ona



Zorionak!



Benetako zorte ona




Benetako zorteranzko bidea



Ez dago aitzakiarik

Zorionak!



Taupada hau irakurtzen ari
bazara, seguru asko oraingoan
ere ez zaizu loteria egokitu
izango...

Animo, UPV/EHUn egiten duzu lan. Ba
al zenekien UPV/EHUko langile
gehienak harro daudela bertan lan
egiteagatik?

Gainera, ba al zenekien loteria
egokitu zaien pertsonen %80k 5
urteko epean diru guzta galtzen
dutela edo zor handiagoak egiten
dituztela?

Horregatik, loteria
egokitu ez bazaizu...
zorionak!



Benetako zorte ona

- **ZORTEA** existitzen al da? Bai, noski! Baino hain da arraroa zortea izatea, non ez baituen ezertarako balio haren zain egoteak. Gainera, oso gutxi irauten du...
- Benetako **ZORTE ona** norberak sortzen du. Horixe bera da betiko irauten duen **ZORTEA**.
- **ZORTEA** lanaren bidez iristen da, pertsona saiatuak, sortzaileak eta berritzzaileak izanda.

Benetako zorteranzko bidea



- “Ozko Aztian” bezala, ez atera bide horitik.
- Hau da, jarraitu beti zehaztutako helburua erdiesteko ezarritako **ekintza-planari** (ikus aurreko taupada).
- Inguratu zaitez zure helburu bera duten pertsonez. Eskatu laguntza.
- Gozatu bideaz, lorpen txikiez, eta besteekin partekatu.



Ez dago aitzakiarik

Ez dago aitzakiarik zure helburua erdiestearren lan ez egiteko. Baztertu zure gaitasunei buruz dituzun uste okerrak:



Txorimaloak uste zuen ez zuela bururik... eta istorioan burutaziorik onenak berak izan zituen...



Latorrizko gizonak bihotza eta adorea zituela frogatu zuen, bere parte-hartzea ezinbestekoa izan zenean lagun bat laguntzeko.



Lehoiak ausardia eta zuhurtasuna nahasten zituen.



... eta Dorothyk, inoiz ez zuen laguntzarik behar izan etxerako bidea aurkitzeko. Beti egon zen bere esku bidea aurkitzea... baino ez zen bere buruaz fidatzen.

Ekinaren ekinez, ezina eginez...

Zorte on izeneko best-seller liburuaren egilea den Alex Roviraren arabera, lehendabiziko arauak dio ZORTEAk ez duela betiko irauten, norberaren esku ez dagoelako. ZORTE ONA, berriz, norberak ahalbidetzen du; horregatik da betiko.

ZORTE ONAren bigarren arauak dio gende askok nahi duela zorte ona, baina gutxik erabakitzen dutela haren bila joateako; beraz, ez dute lortuko. Zeozer nahi baduzu, ez egon zain, haren bila joateko presta zaitez.

... eta azken arauak dio zorte ona izateko aukerei baldintza egokiak prestatu eta landu behar direla. Aukerak ez dato zortearen bidez edo zoriak lagun; aukerak hor daude beti, noiz landuko zain.

Hori dela eta... lanari ekin, beti duzulako aukera zortea zureganatzeko; eremua erein egin behar da, besterik ez... Gogoratu...

Ekinaren ekinez, ezina eginez!

Hurrengo taupadan...

PROKRASTINAZIOARI buruz hitz egingo dugu; hau da, GERORATZEARI buruz. Prokrastinazio da helburuak erdiestea eragotzi dezakeen etsai nagusia.

Ezarri urtean
zehar
erdietsi
beharreko
HELBURUAK

Aztertu gaur
egungo egoera

Aztertu zer
aukera dituzun
mugak
gainditzeko

Ezarri ekintza-
plan bat, zehaztu
epeak, eta bete
zintzoki

Helbururanzko
bideaz gozatzean
dago giltza,
baikortasuna eta
ilusioa bidelagun
hartuta. Azken
batean,
zoriontsu
izatean.

Ez eman amore, eta jarraitu geziari!

